

Idatzi honen bidez Euskal Elkargoarengana zuzentzen gara:

- Katalunian gertatzen ari dena oso larria da, eskubide zibil eta politikoak, askatasun demokratikoak urratzen ari dira. Demokrazia bera dago jokoan.
- Kataluniako gobernuak zilegitasun osoa du urriaren 1eko erreferenduma deitzeko. Herriari hitza eman eta hitza errespetatzea demokrazia kontua da.
- Urriaren 1ean Kataluniako herriak bozkatzeko duen eskubidea urratua izaten ari da. Espainiako gobernuak auzi politiko bati errepresioarekin erantzun dio. Momentu honetan salbuespen egoeran dago Katalunia.

Gertatzen ari dena kontuan hartuz, Euskal Elkargoari honako eskaerak zuzentzen dizkiogu:

- Kataluniarekiko babes eta elkartasun osoa adierazi dezala eta errepresio bidearen aurkako jarrera argia azaldu dezala.
 - Espainiako Gobernuari exijitu diezaiola urriaren 1eko erreferendumaren antolaketa eta gauzapena errespetatzea eta bertatik ateratako emaitza onartzea.
 - Erabateko eta baldintzarik gabeko babes politikoa eman diezaiola urriaren 1eko erreferenduari eta bertatik ateratako emaitzak zilegiztat har ditzala ondorio guztietarako.
 - Laguntza logistikoa eta juridikoa eman diezaiela Kataluniako instituzioei eta Kataluniako herriari erreferendum hori ahalik eta berme gehienekin egin dadin, besteak beste:
- instituzio honetako zerbitzu juridikoak Generalitatearen behar izanetarako eskainiz
 - begirale moduan arituko litzatekeen ordezkariak instituzionala bidaliz
 - boto paperak inprimatu nahiz bozka kutxak jartzeko, edo behar denerako beharrezkoa den laguntza logistikoa eskainiz

Baionan, 2017ko irailaren 27an

Par la présente, nous nous adressons à la Communauté d'agglomération du Pays Basque :

- Ce qui se passe actuellement en Catalogne est extrêmement grave puisqu'on est en train de bafouer les droits civils et politiques tout comme les libertés démocratiques. La démocratie elle-même est en jeu.
- Le gouvernement de Catalogne a toute la légitimité pour convoquer le referendum du 1er octobre. Donner la parole au peuple et la respecter est une question démocratique.
- On est en train de bafouer le droit qu'a le peuple catalan de voter le 1er octobre. Grâce à la répression, le gouvernement répond à un problème purement politique. La situation que vit actuellement la Catalogne est vraiment exceptionnelle.

Tenant compte de ce qu'il se passe, nous transférons ces requêtes au Gouvernement d'EAE, à celui de Navarre et à la Communauté d'agglomération du Pays Basque :

- Nous demandons aux 3 gouvernements ci-dessus, qu'ils apportent tout leur soutien et solidarité et adoptent une attitude ferme à l'égard des mesures répressives.
- Nous demandons qu'il exige du Gouvernement espagnol qu'il respecte l'organisation et la réussite du referendum du 1er octobre et qu'il respecte son résultat.
- Nous demandons qu'il offre son soutien politique total au referendum du 1er octobre et qu'il donne toute sa légitimité au résultat et à ses conséquences.
- Nous demandons qu'il offre une aide logistique et juridique aux institutions de Catalogne et au peuple catalan pour que le referendum puisse avoir lieu et ce, avec le maximum de garanties possibles, parmi lesquelles :
- mettre à disposition de la Generalitat son service juridique
- envoyer une représentation institutionnelle qui agirait en tant qu'observateurs et observatrices
- offrir toute l'aide logistique nécessaire que ce soit pour imprimer les bulletins de votes ou encore pour fournir des urnes.

Bayonne, le 27 septembre 2017



www.lab.eus